

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa

Albisteak

EKTko zenbait ikasle eta irakasle Oteizaren museoan izan ziren, bisitan

2009/03/30

Martxoaren 28an, **Euskal Kulturgintzaren Transmisioa** ikastaroan dabilzan hainbat kide, zenbait seniderekin batera, Nafarroan izan ziren, Altzuzan, Jorge Oteiza eskultorearen museoa bisitatzeko.

Bisitariak **Javi Moreno** izan zuten gidari, EHUko irakaslea, zeinek prestatu baitzuen aurkezpen bat neurrirra egokitua Huheziko ikasleentzat, eta bizia erabat, hainbeste non entzuleak oso pozik irten baitziren museotik.

- Bisitaldiko argazkiak

Julen Arexolaleiba EKT ikastaroko koordinatzaileak ederto laburbildu zituen bisitak eragindako emozioak: "Kubo, esfera eta zilindro klasikoetatik Oteiza hiperbolera zein nola heldu zen jakin genuen...; arketipo berriari heldu eta hara nola zizelkatu zituen Arantzazuko apostoluak! Espazioa betetzen edota husten hasita, kutxa hutsak eta kutxa metafisikoak hurrenez hurren..."

"Espazioaren eta denboraren tranzendentzia, bizitzaren zentzu tragikoa heriotzaren aurrean, hutsaren betetasuna Jorgeren eskulturetan eta aspaldiko garaikoen kromletzetan... Klarionen laborategitik, tamainaertaineko eskulturetara, arkitekturara zenbaitetan.

"Goizeko hamaiketatik bazkalaurreko ordu bietara, konturatu ere egin gabe joan zitzaigun denbora: adi-adi, gogoetatik gogoetara, gozatzen".

Bisitaren ostean, Eugira egin zuten batzuek bazkaltzera, Fernando Goñi pilotariaren Hostal Quinto Real jatetxera. Majo bazkalduta, gustura itzuli ziren, nor bere herrira, hurrengo irteera noiz izango ote den pentsatzen.

